

ILARGIA

Gaur Ilargia zoragarri dago; soineko zuria darama eta irribarre zabal batekin agurtzen nau.

Gogor estutzen diot eskua aitaxori. Hotz egiten du txalupan, eta olatuen beldur naiz, gero eta handiagoak baitira. Tira, ez. Ez naute beldurtzen, jadanik handia naiz-eta, bost urte, eta helduok ez gara lelokeria horiez beldur. Ez dut ezer esango. Aitaxori eskua askatzen diot. Ausarta naiz. Eta bat-batean, olatu batek irensten nau. Ur-azalerara igeri egiten saiatzen naiz, baina ezin dut.

Begiak ixtera noanean, beste ume batzuk begiztatzen ditut. Baina ez daude bakarrik, hamar mila bat dira. Ni bezala galduak. Sekula aurkituko ez dituztenak. Eta Ilargiak irribarre egiten dit.